



Mandala propioak sortzeko gida

Argibidea orokorrak

Mandalak nahiz beste irudiak ikasleen ezagutza prozesua ebaluatzeko lagungarri izan daitezke. Kasu hauetan, ikasleek ikasitako eduki eta prozedurak mandala forman islatzea da xedea. Dena den, kontuan izan behar dugu ez dela sekula ere egindako mandalen edertasuna neurtuko. Horren ordean, ikasleak mandala horiek osatzerako orduan ikasitako kontzeptuekin eginiko erabilera eta konexioa baloratuko da, eta baita lana egiterako unean izandako jarrera ere.



Mandala propioak sortzeko gida

2. Simetriaren bila jarraitzen dugu

1. Lehenik eta behin, zerrenda itzazu gai honetan landu dituzun eduki eta kontzeptuak beheko taulan.
2. Objektu bera irudikatzeke mila modu daude: marrazki errealista bat egin dezakegu edo, aldiz, marrazki sinpleago bat. Erreparatu hurrengo **esteka honetako** mendiaren adibideari:
 - Lehen laukitxoan, saiatu dagokion kontzeptu edo elementua irudikatzen ahalik eta modurik zehatzenean, eta arkatza bakarrik erabiliz.
 - Bigarren laukitxoan, saiatu elementu bera era sinpleagoan irudikatzen. Horretarako, elementu horren ezaugarri adierazgarrienak nabarmendu ditzakezu.
 - Hirugarren laukitxoan, dagokion elementuaren irudirik sinpleena egiten saiatu. Bigarren eta hirugarren laukitxoetarako punta lodiko errotuladorea erabiltzea gomendatzen dizugu, xehetasunak alde batera uzteko.

Teknika bera erabiliz, osatu taulako gainerako laukitxoak.

UNITATEA:		GAIA:	
KONTZEPTUA	1. IRUDIA	2. IRUDIA	3. IRUDIA

Hezkuntza Sailak diruz lagundutako materiala.




www.mandala-zientifikoak.eus

Mandala propioak sortzeko gida

2. Simetriaren bila jarraitzen dugu

3. Marrazkiak egin ondoren, simetria lantzeko ordua da. Izan ere, emaitza harrigarriak lor ditzakegu mandalak sortzean simetriarekin jolastuz. Hori baino lehen, ordea, landu dezagun simetria. Saia zaitetz irudiak osatzen, marra gorria simetria ardatz gisa erabiliz.




Mandala propioak sortzeko gida

2. Simetriaren bila jarraitzen dugu

4. Zerrendatutako irudiak simetriko bihurtuko ditugu orain.

- Horretarako, hartu paper zati bat (lau zatitan moztutako folio baten zati bat izan daiteke) eta tolestu ezazu erditik.
- Ondoren, marraztu taulan aipatutako elementu baten erdia tolesturaren albo batean.
- Moztu sortu duzun marrazkiaren silueta papera tolesturik duzula (bi aldeak moztu).
- Horrela, erraz-erraz gehitu diozu simetria hasierako irudiari.
- Egin gauza bera zerrendako gainerako elementuekin.







Mandala propioak sortzeko gida

2. Simetriaren bila jarraitzen dugu

5. Mandala sortzeko ordua da:

- Lehenik eta behin, moztu karratu bat paperean eta ondoren, tolestu jarraian ageri den moduan.
- Triangelua sortutakoan, kokatu ertzetan tolestura bidez sortu berri dituzun irudiak eta kalkatu itzazu.
- Azkenik, moztu kalkatutako irudia.
- Zabaldu eta ikusi lorturiko mandalak.



Hezkuntza Sailak diruz lagundutako materiala.



www.mandala-zientifikoak.eus